# Borondatezko deskontaminaziorako eta lurpeko urak kutsadura puntualetik babesteko beste izapide batzuk egiteko eskabidea

Inprimaki hau betetzeko, idatzi **letra larriz** eta **markatu gurutze batez** dagozkion laukiak. Ataletan agertzen diren zenbakiak inprimakien amaierako jarraibideekin lotuta daude, eta inprimakiak errazago ulertzea dute helburu. **Izartxo gorriek** nahitaez bete beharreko eremuak adierazten dituzte.

## 1 Eskatzailearen datuak

Eskatzailearen datuak beti bete beharko dira, nahiz eta ordezkariaren datuak ere adierazi [i].

| Izen-abizenak/Sozietatearen izena(*): | | Sexua(*): |
|---|---|---|
| | | |
| NAN/IFZ(*): Adib.: 00000000P/ A0000000P ☐☐☐☐☐☐☐☐☐ | Lurralde historikoa(*): | Udalerria(*): |
| | | |
| Herria(*): | Helbidea(*): | Posta-kodea(*): |
| | | |
| Telefonoa(*): ☐☐☐☐☐☐☐☐☐ | Helbide elektronikoa: | |

Ordezkaririk izanez gero[ii]

| Izena(*): | Abizenak(*): | Sexua(*): |
|---|---|---|
| | | |
| NAN/IFZ(*): Adib.: 00000000P/ A0000000P ☐☐☐☐☐☐☐☐☐ | Lurralde historikoa(*): | Udalerria(*): |
| | | |
| Herria(*): | Helbidea(*): | Posta-kodea(*): |
| | | |
| Telefonoa(*): ☐☐☐☐☐☐☐☐☐ | Helbide elektronikoa: | |

*Eusko Jaurlaritzaren Ahalordeen Erregistroan mota honetako espedienteetarako alta emanda dagoen ordezkari bat edukiz gero, ordezkari horrek lehentasuna izango du eskabide honetan adierazten den ordezkariaren aurretik.*

Jakinarazpenei buruzko datuak(*)

| | |
|---|---|
| Jakinarazpenetarako hizkuntza | ☐Euskara |
| | ☐Gaztelania |
| Jakinarazpen mota (pertsona fisikoak) | ☐Elektronikoa |
| | ☐Posta bidezkoa |

## 2 Ezaugarriak

### Jarduketaren kokapena[iii]

| | | | |
|---|---|---|---|
| Lurralde historikoa: | | Udalerria: | |
| Jarduketa nagusiaren kokapena (erabili hiru metodo hauetako bat)[*] | | UTM 30N ETRS 89 koordenatuak (berrikusi hemen: https://uragentzia.euskadi.eus/visor-de-informacion-geografica-de-la-agencia-vasca-del-agua/webura00-minima/es/): UTMX / UTMY | |
| | | Katastroko erreferentzia: | |
| | | Poligonoa: | Lurzatia: |
| Kutsadurak eragindako beste lurzati batzuk (katastroko erreferentzia edo udalerria/poligonoa/lurzatia): | | | |

*ETRS 89 sistema erabiltzen da, dekretu hau oinarri hartuta: 1071/2007 Errege Dekretua, uztailaren 27koa, Espainiako erreferentzia ofizialeko sistema geodesikoa arautzen duena.*

### Beste erreferentzia batzuk

| | |
|---|---|
| Geoiker kodea(k)[iv]: | Kutsatutako lurzoruen prozedurarako erreferentziak[v]: |

## 3 Honako hau eskatzen du[vi]

### Markatu dagokion aukera [*]

| |
|---|
| ☐Borondatezko deskontaminazioa, Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduaren 272 quater artikuluari jarraituz (849/1986 Errege Dekretua eta ondorengo aldaketak) |
| ☐Urgentziazko jarduketen jakinarazpena, Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduaren 273. artikuluari jarraituz (849/1986 Errege Dekretua eta ondorengo aldaketak) |
| ☐Beste jarduketa edo dokumentu batzuen balorazioa |

**Urgentziazko jarduketak** jakinarazi nahi izanez gero, **edo beste jarduketa edo dokumentu batzuen balorazioa eskatuz gero**, azaldu zer nolakoak diren eta zer dokumentu aurkezten duzun[vii]

## Eskatzailearen sinadura (edo ordezkariarena) (*)

## 4 Dokumentu osagarrien zerrenda(viii)

| |
|---|
| ☐Nortasun juridikoa egiaztatzen duen dokumentua (legeztatutako kopia aurkeztuko da, edo, bestela, jatorrizkoa eta fotokopia, Uraren Euskal Agentziak erka ditzan). |
| ☐Legezko ordezkaritza egiaztatzen duen dokumentua (pertsona juridikoak baldin badira, edo baimenaren eskatzailea ez baldin bada interesduna). |
| ☐Aurretiazko Karakterizazio Azterlan (AKA). |
| ☐Karakterizazioko eta Ingurumen Diagnostikoko Azterlana (KIDA). |
| ☐Arriskuen Analisi Kuantitatiboa (AAK). |
| ☐Deskontaminazio-proiektua. |
| ☐Deskontaminazio-jarduketak. Txosten partzialak/Azken txostena. |
| ☐Urgentziazko jarduketak. |
| ☐Kontrol- eta jarraipen-programa. |
| ☐Jarraipen-txostenak. |
| ☐Jarduketa osagarriei buruzko txostenak. |
| ☐Beste batzuk: |

**Nahiago baduzu Administrazioak zure izenean dokumentazio hori eskuratzea, kontsultatzea edo egiaztatzea, markatu dagozkion laukiak:**

**Eskatzailea:**

☐Baimena ematen dut espediente hau izapidetzean nire nortasun-datuak kontsultatu ahal izateko, NAN, IFZ, AIZ eta pasaporterako Nortasun Datuak Egiaztatzeko Sistemaren bidez (apirilaren 28ko 522/2006 Errege Dekretua).

**Ordezkaria:**

☐Baimena ematen dut espediente hau izapidetzean nire nortasun-datuak kontsultatu ahal izateko, NAN, IFZ, AIZ eta pasaporterako Nortasun Datuak Egiaztatzeko Sistemaren bidez (apirilaren 28ko 522/2006 Errege Dekretua).

**Pertsona juridikoen ordezkariak:**

☐Baimena ematen dut, espediente hau izapidetzean, ahalordetze-eskriturari edo ordezkaritza-ahalordeei buruzko datuak Uraren Euskal Agentziak kontsultatu edo egiaztatu ditzan, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 53.d) artikuluan eta Herritarrek Zerbitzu Publikoetan Sarbide Elektronikoa izateari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legean ezarritako baldintzetan, eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan jasotako baldintzei jarraituz.

**Jabetza egiaztatzea:**

☐Baimena ematen dut, espediente hau izapidetzean, katastroko dokumentuei eta jabetza-eskriturei buruzko datuak Uraren Euskal Agentziak kontsultatu edo egiaztatu ditzan, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 53.d) artikuluan eta Herritarrek Zerbitzu Publikoetan Sarbide Elektronikoa izateari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legean ezarritako baldintzetan, eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan jasotako baldintzei jarraituz.

## 5 Eskabidea betetzeko jarraibideak

i. Eskabidearen titulartzat hartzen dira eskabidea sustatzen dutenak eskubide indibidual nahiz kolektibo legitimoen titular gisa.

Pertsona juridikoek, titulartasuna egiaztatzeko, eraketa-eskrituraren lehen kopia eta fotokopia aurkeztu beharko dituzte, gero erkatzeko. Ez dago aipatutako dokumentuak aurkeztu beharrik, baldin eta baimena ematen bada, espediente hau izapidetzean, dokumentu horiei buruzko datuak kontsultatzeko Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 53.d) artikuluan eta Herritarrek Zerbitzu Publikoetan Sarbide Elektronikoa izateari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legean ezarritako baldintzetan, eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan jasotako baldintzei jarraituz.

ii. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 5. artikuluak honako hau dio ordezkaritzari buruz:

- Ordezkari bidez ere jardun dezakete jarduteko gaitasuna duten interesdunek, eta ordezkariarekin gauzatuko dira orduan administrazio-jarduketak, interesdunak espresuki aurkakorik adierazten ez badu.
- Jarduteko gaitasuna duen edozein pertsona fisikok, eta edozein pertsona juridikok, beren estatutuetan hala aurreikusia badute, beste baten ordezkari gisa jardun ahal izango dute administrazio publikoen aurrean.
- Ordezkaritza apud acta ahalordearen bidez egiaztatu beharko da, eskatzaileak agerraldi pertsonala eginez, edo, bestela, Adierazpen Osagarriaren inprimakian ahalordearen kopia legeztatua aurkeztuz, edo originala eta fotokopia, Uraren Euskal Agentziak erka ditzan. Ordezkaritza egiaztatutzat joko da, halaber, dagokion egoitza elektronikoan agerraldi elektronikoa eginez, edo administrazio publiko eskudunaren ahalordeen erregistro elektronikoan inskribatu izana egiaztatuz.
- Ordezkaritza ez egiaztatzeak edo behar bezala ez egiaztatzeak ez du eragotziko eskaera egindakotzat hartzea, baldin eta ordezkaritza egiaztatzen edo akatsa zuzentzen bada hamar eguneko epean, epe hori eman beharko baitu administrazio-organoak, edo epe handiagoan, kasuak hala eskatzen badu.

iii. Kutsadura puntuala gertatu den lekuaren kokapen geografiko zehatza eta zehazgarria; kutsadura-fokua edo -fokuak dauden katastroko finka guztien berri eman beharko da.

iv. Adierazi kokalekuaren Geoiker kode guztiak, halakorik balego (Eusko Jaurlaritzaren inbentarioa, lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten lurzoruak biltzen dituena).

v. Adierazi Lurzoruaren kutsadura prebenitzeko eta zuzentzeko prozeduren espedienteen erreferentziak, bai abian den kokalekuarekin lotutako espedienteenak, bai ebatzita daudenenak, halakorik balego.

vi. Lauki zuria markatuko da, eskaeraren xedea zein den aintzat hartuta: borondatezko deskontaminazioa, urgentziazko jarduketen jakinarazpena edo beste jarduketa edo dokumentu batzuen balorazioa.

vii. Urgentziazko jarduketen jakinarazpena markatuz gero, gertaeraren berri eman beharko da, bai eta haren irismenaren eta hartutako neurrien berri ere, Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduaren 273. artikuluari jarraituz.

Eskaeraren xedea beste jarduketa edo dokumentu batzuk baloratzea bada, argi eta zehatz zehaztu beharko da jarduketa horien izaera, eta, halaber, zehatz identifikatu beharko dira dagozkion dokumentuak.

viii. Eskaeraren xedea borondatezko deskontaminazioa bada, berriz, nahitaezkoa izango da dokumentazio hau eranstea:

- Kutsaduraren karakterizazio-azterlanak (Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduaren X. eranskineko A atala)
- Arriskuen analisi kuantitatiboa (Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduaren X. eranskineko C atala)
- Borondatezko deskontaminazio-proiektua (Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduaren X. eranskineko D atala)

| DATUAK BABESTEARI BURUZKO OINARRIZKO INFORMAZIOA | |
|---|---|
| **Tratamendu-jarduera** | Uraren arloko baimenak eta emakidak kudeatzea |
| **Arduraduna** | Uraren Euskal Agentzia |
| **Helburuak** | Obrak eta beste jarduketa batzuk egiteko behar diren baimen-espedienteak kudeatzea, halakoak egiten badira jabari publiko hidraulikoko esparruetan, ibilguak babesteko zortasun- eta zaintza-eremuetan eta EAEren eskumeneko itsas-lehorreko jabari publikoa babesteko zortasun-eremuan. Jabari publiko hidraulikoan, bai erkidego arteko arroetan, bai erkidego barnekoetan, isurketak egiteko baimen-espedienteak kudeatzea, bai eta EAEren eskumeneko uretan lehorretik itsasora isurketak egiteko baimenak kudeatzea ere. Jarraipen analitikoa. Txostenak egitea Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko 16/2002 Legearen aplikazio-eremuan. Isurketen errolda eta inbentarioa egitea. EAEko barne arroetan (lurrazalean zein lurpean) ura biltzeko emakiden eta baimenen espedienteak kudeatzea. Administrazio-errekurtsoak. Jabari publiko hidraulikoan nabigazio- eta flotazio-jarduerak egiteko erantzukizunpeko adierazpena. Jabari publiko hidraulikoan eta dagokion zaintza-eremuan kontserbazio-jarduketa txikiak egiteko erantzukizunpeko adierazpena. Itsas-lehorreko jabari publikoa babesteko zortasun-eremuan eraikinak edo instalazioak konpontzeko, hobetzeko, finkatzeko eta modernizatzeko obrak egiteko erantzukizunpeko adierazpena. Familia bakarreko etxebizitzetatik datozen hiriko hondakin-urak udal-saneamenduan sartzeko aukerarik gabe isurtzeko erantzukizunpeko adierazpena. Lurpeko uren kutsadura puntualaren deklarazioak ur horiek kutsadura-iturri espezifikoetatik babesteari egiten dio erreferentzia, normalean industria-jatorrikoak. |
| **Legitimazioa** | ○ Tratamendua beharrezkoa da aplikatu beharreko lege-betebeharrak betetzeko.<br>○ Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean misio bat egiteko edo tratamenduaren arduradunari aitortzen zaizkion botere publikoak betetzeko. |
| **Hartzaileak** | ○ Foru-aldundiak<br>○ Estatuko Administrazioaren beste organo batzuk<br>○ Toki-administrazioko beste organo batzuk<br>○ Euskal Autonomia Erkidegoko beste organo batzuk |
| **Eskubideak** | Eskubidea duzu datuak irispidean izateko, datuak zuzentzeko eta ezerezteko, bai eta informazio gehigarrian adierazitako beste eskubide batzuk ere (www.euskadi.eus/servicios/10842/). |
| **Informazio gehigarria** | Gure web-orrian kontsultatu dezakezu datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehaztua: www.euskadi.eus/clausulas-informativas/web01-sedepd/es/transparencia/137500-capa2-es.shtml |
| **Araubidea** | ○ Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES).<br>○ 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa (www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2018-16673). |